

Aurrerantz

**IKUSPEGIAK (III-IVTIK)
 PERSPECTIVAS (III DE IV)**

2020ko martxoaren 22(e)an

EDUKIEN TAULA / TABLA DE CONTENIDOS

- 1) [EUS]
- 2) [ES]

1 [EUS]

2019ko udan, esker abertzalean eta erreformismoaren zenbait sektoretan, Ikuspegiak izeneko gure trilogiaren lehen bi zatiak eztabaidatu ziren. Azpimarratu nahi dugu komenigarria dela lehenik bi zati hoiak irakurtzea (<https://www.boltxe.eus/2019/02/19/ikuspegiak-i-perspectivas-i/> eta <https://www.boltxe.eus/2019/09/02/aurrerantz-11-ikuspegiak-ii-perspectivas-ii/>), azken bederatzi hilabetetan emandako garapena, bertan esaten genuena eta hirugarren zati honetan defendatzen duguna erkatu ahal izateko. Hemen azken paragrafoa jarriko dugu:

Ikusten dugunez zailtasunak zinez handiak dira. Baina atzera begiratuta, azken 8 urteetan benetako dinamikan aurrerapauso esanguratsuak ikusten ditugu zentzu guztietan. Gogoan izan duela zortzi urte herri langilearen greba deialdi masiboak bertan behera geratu zirela, Estatuari barkamena eskatu eta legeak onartzen hasi zitzaizkiola, herri mugimenduari burua moztu eta militantzia iraultzailearen zati handi baten borrokarako prestutasunaren gainbehera etorri zela.

Hirugarren eta azken atalean, bateratze eta erakundetze batera iristeko zenbait proposamen garatuko ditugu.

Gertakizunek agintzen dute. 2019ko udatik garatzen ari diren kontraesanek kapitulu bat gehitzera behartu gaituzte. Hirugarrenarekin amaitu behar zen trilogia baino EAEn apirilaren 5erako aurreikusita dauden hauteskundeen ostean jarraipena izango du. Bada, zergatik luzatzen dugu? Ez da baskongadetako burgesiak, egun dituen eta kontrolatu ezin dituen arazo andanak presionatuta, hauteskundeak aurreratu dituelako. Ez da Nafarroako Gobernuak, euskal kutsuko erregionalismoak eta erreformismo abertzaleak babesturik PSOE-k bertan duen sukurtsal hori, Madrilen erabat gutxien dutelako. Are gutxiago EH Bildu irrintziz zurituriko «abertzaletasun konstituzionala» finkatzen laguntzen ari delako. Ezta Macronek Iparraldean eskubide sozialen murrizketa bortitza inposatu duelako ere... Joera hauek aurreikusita zeunden, erraza zen gauzatzea indar harremanak eta egoera kontuan hartuta. Eta halaxe gertatu da.

Euskal kapitalismoa suntsitzen ari diren kontraesanek hartzen dituzten forma guztiek kezkatzen gaituzte, eta horrexegatik, formaren analititik –EAJ, PSOE, PP bezalako alderdien ustelkeria adibidez– edukiaren kritikara pasa nahi genuke: Ustelkeria kapitalismoak oro har, eta Euskal Herrian bizi den burgesiari zehazki, bere mozkinak handitzeko duen beharraren isla da. Esaterako, burgesia eta bere erakundearen ustelkeria gabe, ez lirateke Zaldibarko ezbeharrean bezala langilerik hilko –«lan eremuko erailketak». Ustelkeriaz gain, 2019ko udatik hona marraztu genituen bi lerroen arteko talka indartu da: lehen mailakoa, gizarteak okerrera egitea, eta bigarren mailakoa, Madrilgo Gobernuak tarte baterako arnasa hartu izana, Podemosen makulu eta beste indar batzuen babes zuzen edo zeharkakoaren bidez.

Mendebaldeko inperialismoan isileko borroka bat ari da gertatzen eta Eurasiaren garapena gelditzea du helburu. Lehendabizi Afrika, Latinoamerika, Erdialdeko Asia eta Indian, eta gero munduan. Inperialismo barruan ere potentzia handiak borrokan daude, Eurasia garaitu eta mundua berriz menperatzen dutenerako, harrapakinaren ahalik eta zatirik handiena bereganatu nahian. Erraldien arteko borroka honetan Espainiako estatua zoruan ostiko jotzen hasteko eskubiderik ez duen ipotx pasibo bat baino ez da, baino militarri bere kokapen geografikoagatik balio estrategiko handia eta nazioarteko finantza kapitalek barkatuko ez dioten zor garrantzitsu bat duena. Dena den, zerbitzuetan indartsu baino industria mailan ahula den ekonomia bat eta nazio-estatu kohesio ahula izan arren, nazioartean pisu politiko jakin bat dauka eta potentzia handiek bere aldera eramatea beharrezko dute, batez ere

mundu mailako ekonomia ahultzen ari delako, eta horrekin batera europarra –oraindik neurtu gabe dauzka Brexit-ak suposatuko dion galera, Koronabirusa, Ekialde hurbileko tentsioa...– eta ondorioz, espainiar eta euskal ekonomia baita ere.

Oso datu argigarria da honako hau: Estatu espainiarraren pean bizi den herritar bakoitzak finantza kapitalari 23.332 euro zor dizkio, burgeseriaren esanetan beraien Estatuak duen zor publikoaren norbanako zatia alegia, eta beraien kabuz 2019an % 4,8 handitu dute. Kapitalak oro har, eta estatu mailakoak bereziki, ederki daki zapal dutako klase eta nazioek ez dutela inolako hobekuntzarik eduki, zor horrek klase zapaltzailea aberasteko baino ez duela balio izan, baino zapal dutakoei ezarriko diete berriz ere zama hori. Nola egingo dute? Mila modutara behartuz, dirua ateratzeko bizitza guztian zehar kolpeak emanaz, eta hau gutxi balitz, hil da gero bere ondorengoei.

Behin eta berriro aipatu ditugun egiturazko baldintza hauetan, Estatu espainiarrak nolabaiteko lasaitasun ezegonkorra lortu du bere helburuak gauzatu ahal izateko. Lehengo bere botoen poltsa zulatua handitzea, aliantza ezegonkor eta zailak saihesteko. Horretarako sektore herrikoien gaitasuna berreskuratu behar du, mobilizazio handiek eskatutako zenbait premiazko erreforma eginez; Katalunia, Euskal Herria eta Galiziako klase ertain eta txikiak erosteko sistema hobetu behar du, eta zentralismo muturrekoak odolustu eta zorpetu dituen indar erregionalistak erakarri behar ditu; pozik utzi behar du kapitala erreforma horiek bere mozkinak ez dituztela kaltetuko bermatuz, eta kasurik okerreanean etorkizuneko Espainia hobe eta kapitalistago bat lortzeko inbertsio bezala ikusi ditzaten; Bruselarekin negoziatu behar ditu baldintzak eta Trump lasai mantendu, bere base militarretan nahi duena egiten utziz.

Eserleku gutxi eduki arren, gobernuak baditu karta onak: Estatuan zehar lurraldeka daukan boterea; EAJ, Compromis eta BNG-ren baldintzagabeko babesa...; Kataluniako tarta hobeto banatzeko, ERCK sutsuki, eta publizitate gutxiagorekin bada ere, JxCat-ek dauzkaten gogoak; gizarte multzo ezberdinen artean neofaxismoari eta trifatxitoari dagoen beldurra; PPren barruan dauden tentsioak, Galiza Vaskogada eta Katalunian udaberri eta udazkenean izango diren hauteskundeetan lehertu daitezkeenak; Espainiako elizak ultraeskuinetik erdialdeko eskuinera egindako aldaketa Bartzelonako

kardinala gotzain-batzarreko buru izendatzean... eta abar. Baino batez ere indar erabakigarriak dauzka: CCOO eta UGT eta Podemos, iragarrita zegoen bezala eta lotsarik gabe «erakunde politikarako enpresa» bezala aitortuz bere burua, eta «lan parlamentarioa» egiterakoan bere langileen fideltasuna ziurtatuz, burokrazia eta soldata onen bidez.

PSOE-UP gobernuak 2020 urte amaiera arte dauka, hauteskunde autonomikoen zikloa amaitu arte; orduan ikusiko da argiago nola doan Estatu mailako kapitalismoa eta ea PPK Cs irensteko eta VOX-en hazkundera gelditzeko edo bere interesen arabera zuzentzeko ahaleginak ze emaitza ematen dituen, bere aliatu garrantzitsuenetako batek, Elizak, zentro-eskuinera biratu duen honetan; ea mundu mailako kapitalismoak norantz egiten duen, geldialdi ekonomikoa, Koronabirusa, Brexita, Estatu Batuetako hauteskundeak, gerra komertzial eta teknologikoak, lurraldetasun gatazkek eta Mendebalde eta Eurasiaren arteko eta Mendebalde barruko gatazkek eraginda, eta ea ze ondorio dituen petrolioaren prezioan.

Eboluzio hau PSOErantz onuragarria bada, bere boterea handitu eta Podemos-UP eta trifatxitoa ahulduta aterako dira, baino ez da baztertzekoa hauteskundeak aurreratzearekin mehatxu egitea 2021 amaierako momenturen batetik aurrera, edo 2022 hasieran, era horretan Podemos-UP gobernutik bota ahal izateko, bakarrik gobernatzen hasteko eta hurrengo urteetarako botoei errentagarritasun handiagoa ateratzeko; eta ez badu horrenbesterako ematen, «kide» ezerosoa eta gainerako alderdiak estutu eta Estatu eta Europa mailan PSOE babesten duen joera burgesarentzat garrantzitsuak diren erreformak onartzera bultzatzeko moduan egongo da gutxienez, Europa mailan dauden burgesen barne borroketan argi eta garbi yankizalea den beste joera geldiarazteko alderdi sozialista erabiltzen baitute. Etorkizuna iragarri nahian ari gara, baino edonola ere, gertakizun hauek PSOE eta europar sozialdemokrazia eta bere nazioarteko proiektu kapitalista indartzea ekarriko lukete.

Ezarritako errealitate berri honetatik hobeto ulertu ahal izango ditugu, oraingo atal honen, eta bereziki hauteskunde ostean egin asmo dugun laugarren atalaren, azterketa jarraitu ahal izateko funtsezkoak diren lau gauza.

Lehena oinarrizkoa eta erabakigarria: Baliteke urtarrilaren 31ko greba

duela urte batzuk kapitalismoan gertatutako aldaketei erantzuteko klase borrokaren garai berri baten hasiera izatea. Bere eragin sozial eta politikoa kualitatiboa izan da, nazio mailako klase zapalkuntzaren oinarrira jo baitu, eta ondorioz, proletalgoaren eta langileriaren interes eta kontzientziaren oinarrietara. Grebak zapalkuntza guztiak eta horietako bakoitzak kolpatutako gizataldeak mobilizatu ditu, eta zapalkuntza bakoitzak kapitalarekin bateragaitza den oinarri-oinarrizko kritika egin dio. Ondorioz, etorkizunerako potentzial handia dauka.

«Baliteke» nazio eta klase askapenerako borrokaren fase berri bat izatea, diogu, ez baita guztiz ziurra horrela izatea. Ikus dezagun. Nahiz eta klase borroka modu zehatzak hazten ari direla ukalezina den, batzuk eta besteen artean ez dago loturarik, batasun estrategikoa falta da, eta are okerrago, ez dauka herri langileak sortutako erakunde iraultzaile eta langile baten barne bizkarrezur politikorik. Gabezi honek eta beste batzuk klasearen muinean burgeseriaren dominazioa errazten dute, bost bide hauek erabilita gutxienez:

Lehen: «Demokratizazio»-arekiko men egite fetitxistak dituen erro sendoak, eta hartzen dituen itsura ezberdinak -estatutuarena Baskongadetan, forala Nafarroan eta errepublikarra Iparraldean-langileriaren baitan dagoen abertzaletasun espainiar eta frantsesaren presentzia errotua ahaztu gabe. Bigarrena: ELAren proiektu politikoaren ahultasuna eta LABek erreformismo abertzalearekiko duen menpekotasuna, borrokarako prest dauden baseek ez daukatelarik egunerokoan forma ezberdinak hartzen dituen erreformismoari aurre egiteko estrategia iraultzailerik. Hirugarrena: Herri mugimenduak bere osotasunean duen ahultasuna, klase borroka bateratuaren bi oinarrizko osagaien ilusioa geldiaraziz, gaur egungo kapitalismoaren testuinguruan. Lau: EH bilduren klaseartekotasunaren, demokratikotasunaren eta hiritartasunaren demagogiak, herri langilearen sektore ezberdinengan Kapitalaren erakundeekiko eta Estatu zapaltzaileekiko men egite fetitxista indartzea baino ez du eragiten. Eta bost, eragile antolatzaileen dokumentua bera. Bere Aldarrikapen taulak zirrikituak ditu, eta burgeseriarekin adostasunetara heltzeko prest dauden sektoreak sartzea, edo barrutik mugimenduaren norabidea aldarazi, zatiketa eragin edo geldiarazi dezaketen indar soziopolitikoak sartzea ahalbideratzen du.

Bi, guzti honi EAJ eta PSOEn arteko aliantzen inguruko propaganda

gehitu behar zaio. Estatutuaren eta Foru garapenaren inguruko promesak, herri langileak kapitalaren instituzioetatik konstituzio monarkikoa «demokratizatu» daitekeela onartzen baldin badu. Jota-ke ari dira inoiz iritsi ez eta atzera egiten duten hobekuntza sozialak aginduz, baina langile sektore ugari pazientziazko itxaronaldian mantenduz, ezker abertzale iraultzaileak zailtasunak dituelako independentzia eta sozialismoaren aldeko borroka teoriko eta etiko bat garatzeko. Hegoaldean indar errepresiboak legitimatzea, Ertzaintza eta Foruzaingoa, sistemarekiko alienazioren parte da. Mendebaldeko eta Europako inperialismoaren apologiak langile klasean internazionalismoa baztertzea du helburu, ez dadin izan independentziaren alde eta Europar Batasunaren kontra eraiki daitekeen Europa sozialista konfederatu baten aldeko estrategia iraultzaile baten oinarri.

Hiru, guzti honen aurrean EH Bilduk espainolismo erreformista eta burokratikoaren ordezkari ezagunak bere baitan sartzeko emandako pausoak, herri langileriaren sektore ezberdinak mobilizatorik eza eta geldotasun instituzionalera lotzeko presioa areagotzea baino ez dakar. Estatu mailako prentsan eztabaida dago, EH Bildu hegoaldeko «Ezkerraren Etxe Komun» bilakatzeko moduen inguruan. «Etxe Komuna» beti izan da erreformismo ez horren bigunak, erreformismo bigunaren zuzendaritza hartzeko amu paregabea. Euskadiko Ezkerrak bere usteltzea azkartu zuenean Euro-komunismoarekin batu zen, modu horretan 1993an PSOE-ren «Etxe komunean» sartzeko atea zabalduz, beste batzuk EAJren beste etxean sartzen ziren bitartean. Pixka bat lehenago, 1990ean oraindik Santiago Carrillok zuzentzen zuen PCEn sektore batzuk eskumatik aurreratu zuten amore emateen maisua, PSOEren etxe komunean sartuz S. Carrillo bera baino urte bete lehenago. Apurka apurka ETAko beste zenbait militante ohi sartuko ziren.

EH Bilduren maniobra honen funtsa ez dago izenean, bere filosofia eta bideragarritasunean baizik. Filosofi hori beti egon da abertzaletasun sektoreen artean, klasearteko demokratikotasun abstraktuaren itxura hartuz 2018ko abenduko «Demokrazia Bai» kartan, kasta politikoko pertsona ezagunek sinatua, horietatik bi gutxienez EH Bilduko eztabaida proposamena sinatu duten berdinak izanik Bideragarritasuna aldiz, erreformismo abertzalea demokrazia konstituzional espainolean sartzeko ezarriko diren erritmo eta sendotasunaren araberakoa izango da, eta gogotsu dagoela ezin ukatu.

Azkenik, laugarrena, hemen ikusitakoak Urtarrilaren 30eko greba bultzatu duten indar sindikal, herrikoi, kultural eta politikoen gehiengoa presionatu dezake, datorkiguna, udaberri gorri bat beharrean, urte triste eta gris soil bat izan dadin. Apirilaren 5eko hauteskundeetako emaitzek zentzu negatiboan eragin dezakete, geldiarazlea, edo 2010era arte mantendutako bidea berrartuko duen indar iraultzailea eraikitzeke bultzada izan daiteke, une honetan zehaztaperen gehiagorik ez daukana. Baina honetaz eta etorkizuneko ikuspegiez hauteskunde osteko azken atalean hitz egingo dugu.

Azpimarratu nahi dugu hemen jokoan dagoena, sozialismora bideratutako langile klasearen independentzia politikoa garatzea, edo, mundu mailako eta euskal herriko kapitalismoaren egungo testuinguruan, erdi mailako burgesiarekin paktu egonkorak egitera zuzenduriko klasearteko dependentzia politikoa mantentzea dela. Greba Orokorren aurretik, eta iraun zuen bitartean egindako adierazpenek, biztanleriaren % 80a osatzen duen langile klasearen ofentsibazko estrategia soziopolitiko batera itzulera iragartzen zuten, burgesiari honako oharra edo mehatxua luzatuz: Herriari biolentzia ezberdinen bidez lapurtutako eskubide sozial eta demokratikoak itzuli ezean «udaberri gorrian» sartuko garela.

Bere kabuz, eta ez bada erreformismo politiko zein sindikalak edo errepresioak geldiarazten, klase borroken dinamikak helburu demokratiko erradikalak izan oi ditu, eta helburu horiek aurrerago etor daitekeen sozialismoaren aurrerabidea bultzatzen dute. Joera objektibo hau ez bada mila modutara saboteatzen, politikoki bultzatzen bada, litekeena da egungo kontraesanen aurrean herri langileriaren independentzia politikoa indartzea. Duela bi bosturteko arte independentzia politikoaren lanketa etengabea izan da ezker abertzalean, orokorrean teorizatua, eta formulazio ezberdinen bidez adierazia. Independentzia politikoa oinarrizkoa da klase mailako independentzia nazionala eraikitzeke. Berreskuratzea eta egungo kapitalismoaren presiopean praktikatzea ezinbestekoa dira. Ikusiko dugu, ea Greba Orokorrekin zabaldutako bideak indarra hartu edo bertan gelditzen den, edo okerreanean jarrita, txapela duen «Etxe komunerantz» emango den atzera pauso baten aurrean etsipenezko ameskeri hutsa den.

Aurrerantz

Euskal Herria, 2020ko martxoaren 13an

2 [ES]

Durante el verano de 2019 se debatió en la izquierda abertzale y en sectores del reformismo la segunda entrega de nuestra trilogía sobre perspectivas. Recomendamos enfáticamente que ahora primero se relea esa segunda entrega –(<https://www.boltxe.eus/2019/02/19/ikuspegiak-i-perspectivas-i/> y <https://www.boltxe.eus/2019/09/02/aurrerantz-11-ikuspegiak-ii-perspectivas-ii/>) para, después, poder contrastar lo que ahí se exponía con la evolución acaecida en los últimos nueve meses y con lo que sostenemos en esta tercera entrega. Aquí solamente vamos a reproducir su último párrafo:

Como vemos, las dificultades son ingentes. Sin embargo, si observamos la dinámica real en los últimos años apreciamos un significativo avance en todos los sentidos comparando el presente con la situación de hace ocho años, por ejemplo, cuando se dio por concluida la oleada de huelgas generales del pueblo trabajador, cuando se empezó a pedir perdón al Estado aceptando sus leyes, cuando se decapitó al movimiento popular..., con la caída en picado de la combatividad de buena parte de la militancia revolucionaria.

En la tercera y última entrega de esta serie desarrollaremos algunas propuestas sobre y para una posible confluencia tendente a una organización.

Pero los hechos mandan. El desarrollo de las contradicciones desde verano de 2019 nos ha obligado a añadir un capítulo más a esta serie que debía acabar en este tercero pero que se prolongará hasta inmediatamente después de las elecciones autonómicas en la CAV del 5 de abril de este año. ¿Por qué la prologamos? Desde luego no porque la burguesía vascongada haya adelantado sus elecciones autonómicas presionada por un sinfín de problemas cada vez más incontrolable por ella. Tampoco porque el gobierno de Nafarroa, en manos de la sucursal del PSOE apoyada por el regionalismo vasquista y el reformismo abertzale este siendo ninguneado por el gobierno español. Menos aún porque, como estaba previsto, EH Bildu se escora más y

más hacia un «soberanismo constitucional» justificado con irrintzis. Ni siquiera porque Macrón ha impuesto antidemocráticamente el severo recorte de derechos sociales en Iparralde, etc. Estas tendencias estaban previstas, eran muy probables por las relaciones de fuerza y han terminado dándose.

Nos preocupan y mucho estas y todas las formas que adquieren las contradicciones que minan el presente del capitalismo vasco y por eso mismo queremos pasar del análisis de la forma –por ejemplo, la corrupción que sumerge al PNV, PSOE, PP...– a la crítica del contenido: la corrupción como una necesidad creciente en el capitalismo en general y que la burguesía residente en Euskal Herria multiplica para aumentar sus ganancias. Por ejemplo, sin la corrupción que pudre a la burguesía y sus instituciones, muy difícilmente hubieran muerto –«homicidios laborales»– los dos trabajadores en la catástrofe de Zaldibar. Pues bien, además de la corrupción, desde verano de 2019 se ha intensificado el choque entre las dos líneas que expusimos en la segunda entrega: la decisiva, el empeoramiento social, y la secundaria, el respiro transitorio obtenido por el gobierno de Madrid con la muleta de Podemos y el apoyo directo e indirecto de otras fuerzas.

En el imperialismo occidental se libra una pugna sorda, importante aunque no decisiva, entre estrategias diferentes pero no contrarias para enfrentar el avance de Eurasia y disputarle el poder tecnocientífico, energético, financiero y demográfico, por tanto militar, primero en África, América Latina, Asia Central y en el subcontinente indio, y luego en el mundo. A la vez, dentro de este imperialismo, también chocan grandes potencias entre ellas, tanto para robarse unas a otras como para intentar quedarse con la mejor parte del botín que puedan obtener una vez derroten a Eurasia y vuelvan a dominar el mundo. En esta pugna de titanes y colosos, el Estado español es un enano pasivo sin derecho al pataleo, pero con un valor geoestratégico en lo militar, con una deuda muy importante que el capital financiero transnacional no perdona, con una economía fuerte en servicios pero débil en industria, y con una gran debilidad en su cohesión estado-nacional burguesa, pero con un peso político internacional que los grandes potencias necesitan atraer a su lado sobre todo cuando la economía mundial sigue debilitándose y con ella la europea –que entre otras cosas no sabe qué precio ha de pagar por el Brexit, el coronavirus, la creciente tensión en Oriente Medio, etc.– y por tanto la española y la vasca.

Un dato definitivamente esclarecedor resume lo visto hasta ahora; por el solo hecho de nacer, cada persona sometida al Estado español debe 23.332 euros al capital financiero, que es la parte que dicen los burgueses que le corresponde pagar de la deuda pública total de su Estado, que ella misma ha incrementado un 4,8% en 2019. El capital en su conjunto y en estatal sobre todo, saben perfectamente que las clases y naciones oprimidas no han obtenido apenas mejora alguna con ese débito que solo ha enriquecido a la clase dominante, pero a la vez van a cargar esa deuda a las y los explotados. ¿Cómo va a hacerlo? Le obligarán de mil modos, y al final le sacarán el dinero a golpes durante toda su vida y luego a sus descendientes.

En estas condiciones estructurales en las que insistimos una y otra vez, el gobierno del Estado español ha conseguido un período de tranquilidad relativa e incierta para poder cumplir sus objetivos empezando por el primero: aumentar su bolsa de votos y su mermada fuerza electoral para no tener que depender de alianzas inseguras y exigentes. Para lograrlo debe recuperar credibilidad entre los sectores populares que le votaban haciendo algunas reformas urgentes exigidas con grandes movilizaciones; debe mejorar el soborno de las medianas y pequeñas burguesías de Catalunya, Euskal Herria, Galiza... y atraerse a las nuevas fuerzas regionalistas cansadas del hipercentralismo que les arruina y despuebla; debe contentar al capital demostrándole que esas reformas no dañan sus beneficios y que, en el peor de los casos, son una imprescindible inversión de futuro para «hacer una España mejor» y más capitalista; debe negociar las condiciones de Bruselas y mantener tranquilo a Trump dejándole hacer lo que quiera en sus bases militares...

Pese a su debilidad en escaños, el gobierno dispone de bazas importantes: su amplio poder territorial en el Estado, el apoyo incondicional del PNV, Compromís, BNG..., las ganas irrefrenables de ERC y menos publicitadas pero reales de JxCat para negociar un mejor reparto de la tarta catalana, el miedo al neofascismo y al trifachito de sectores sociales, las tensiones dentro del PP que pueden estallar tal vez después de la ronda de elecciones autonómicas en Galiza, Vascongadas y Catalunya de abril a otoño, el giro de la extrema derecha al centro-derecha de la Iglesia española al nombrar al cardenal de Barcelona jefe de la Conferencia Episcopal, etc. Pero sobre todo dispone de dos fuerzas decisivas: CCOO y UGT, y Podemos, que, como estaba anunciado, asume sin complejos que es una «empresa de

la política institucional», burocrática y con buenos sueldos para garantizar la fidelidad de sus empleados en el «trabajo parlamentario».

El gobierno PSOE-UP tiene plazo hasta finales de 2020, cuando termine el ciclo de elecciones autonómicas; cuando se vea con más claridad cómo marcha el capitalismo estatal y cómo triunfa o fracasa el esfuerzo del PP por tragarse a Cs y frenar el ascenso de VOX, o al menos disciplinando desde y para sus intereses un poco más a la extrema derecha, una vez que su aliado clave, la Iglesia, ha girado al centro-derecha; cuando se vea también cómo marcha el capitalismo mundial bajo el impacto del estancamiento, del coronavirus, del Brexit, de las elecciones en Estados Unidos, de las guerras comerciales y tecnológicas, de las guerras regionales, de los precios del crudo según deriven los multi-conflictos entre Occidente y Eurasia y dentro mismo de Occidente, etc.

Si esta evolución es positiva para el PSOE, aumentando su poder y debilitando a Podemos-UP y al trifachito, no es descartable que amenace con adelantar las elecciones generales en algún momento a partir de finales de 2021 o comienzos de 2022 para, de ser posible, echar del gobierno a Podemos-UP, empezando a gobernar en solitario para rentabilizar mejor los votos en las siguientes elecciones generales; y si no da para tanto, apretar las clavijas al incómodo «aliado» y al resto de partidos forzándoles a ceder en reformas importantes para la facción burguesa estatal y europea que apoya al PSOE y que lo utiliza como instrumento para frenar a la facción abiertamente pro yanqui, en las pugnas arriba descritas. Hablamos de futuribles, pero futuribles que beneficiarían al PSOE y a la socialdemocracia europea con su correspondiente proyecto capitalista internacional.

Es desde esta nueva realidad ya establecida como podemos entender mejor cuatro cosas sin las cuales nos resulta imposible seguir nuestro análisis ahora, en este, y sobre todo en el cuarto y último, a realizar después de las elecciones autonómicas en Vascongadas.

Una y fundamental, decisiva: la huelga general del pasado 31 de enero puede significar que, por fin, la lucha de clases en Euskal Herria haya iniciado una nueva fase en respuesta a los cambios acaecidos en el capitalismo desde hace años. Puede hacerlo porque su impacto sociopolítico ha sido cualitativo

al ir a la raíz de la explotación nacional de clase y por tanto a las raíces de los intereses y conciencias de la burguesía y del proletariado. La huelga ha movilizado a los colectivos golpeados por todas y cada una de las opresiones, y lo ha hecho sobre todo desde una crítica de base e inconciliable con el capital. Por tanto, su potencial de futuro es enorme.

Pero también decimos que «puede significar» el inicio de una nueva fase en la lucha de liberación nacional de clase porque no es totalmente seguro que sea así. Veamos. A pesar de que es innegable que aumentan las formas concretas de lucha de clases, todavía están aisladas unas de otras, carentes de una unidad estratégica y lo que es peor, sin una vertebración política interna garantizada por una organización revolucionaria proletaria nacida del pueblo trabajador. Estas y otras deficiencias facilitan sobremanera la dominación burguesa en el seno de la clase mediante, al menos, cinco vías:

Primera: El anclaje de la sumisión fetichista a la «democracia» vigente sobre todo en su forma estatutaria en Vascongadas, foral en Nafarroa y republicana en Iparralde, anclaje al que hay que unir la presencia del nacionalismo español y francés en sectores más o menos amplios de la clase trabajadora. Segunda: La debilidad del proyecto político de ELA y la supeditación de LAB a la política del reformismo abertzale, de modo que sus bases combativas carecen de una estrategia revolucionaria para vencer día a día al reformismo en cualquiera de sus formas. Tres: La debilidad del movimiento popular en conjunto, que frena la fusión entre ambos componentes básicos de la unidad de la lucha de clases en sí misma, sobre todo en el capitalismo actual. Cuatro: el nefasto efecto del interclasismo, del democraticismo y de la demagogia ciudadanista de EH Bildu que refuerza la sumisión fetichista de amplios sectores del pueblo trabajador en las instituciones del capital y de los Estados opresores. Y cinco, el propio documento de las fuerzas convocantes, su Tabla de reivindicaciones, tiene agujeros ideológicos por los que pueden descolgarse sectores que opten por acuerdos con la burguesía, o por los que entren fuerzas sociopolíticas que desde dentro desvíen, escindan y paralicen la dinámica prometidora iniciada.

Dos, a todo esto hay que unir la propaganda de las alianzas del PNV con el PSOE en Hegoalde, propaganda basada en promesas de desarrollo del Estatuto y de la Foralidad siempre que el pueblo trabajador acepte que

se puede «democratizar» la constitución monárquica desde las instituciones del capital. Semejante machaconeo va acompañado de promesas de mejoras sociales que nunca llegan sino que retroceden, pero que mantienen en la paciente espera pasiva a sectores trabajadores porque la izquierda revolucionaria abertzale todavía tiene dificultades para entablar una lucha teórica y ética sobre la necesidad del independentismo socialista. La legitimación de las fuerzas represivas del Estado en Hegoalde, sobre todo de la Ertzaintza y de la Policía Foral, es parte de esta alienación sistemática. La apología del euroimperialismo y de Occidente tiene como objetivo reforzar en la clase obrera su rechazo al internacionalismo, a la crítica del imperialismo y una estrategia revolucionaria contra la Unión Europea en la que el internacionalismo proletario sea la base de la independencia confederada en una Europa Socialista.

Tres, frente a todo esto, el reciente paso de EH Bildu para integrar en su seno a cuatro conocidos representantes del españolismo más reformista y burocrático no hace sino multiplicar las presiones desmovilizadoras que atan a sectores del pueblo trabajador a la pasividad institucional. Ya se ha iniciado un debate en la prensa estatal sobre cómo hacer de EH Bildu una especie de «Casa Común de la Izquierda» pero limitada a Hegoalde. La «Casa Común» ha sido y es el anzuelo para que sectores del reformismo menos blando asuman de coz y hoz la dirección del reformismo más blando. Cuando Euskadiko Ezkerra aceleró su putrefacción se aliaba con el eurocomunismo, abriendo así la puerta para entrar luego en la «Casa Común» del PSOE en 1993, mientras otros sectores entraban en la del PNV. Poco antes, en 1990, importantes sectores del PCE dirigido todavía por Santiago Carrillo, desbordaban por la derecha a su maestro en la claudicación entrando en masa en la «Casa Común» del PSOE, un año antes de que lo hiciera el mismo S. Carrillo; poco a poco entrarían también en ella otros conocidos ex militantes de ETA.

Lo fundamental de esta maniobra de EH Bildu no radica en absoluto en su nombre sino en su filosofía y en su viabilidad. La primera ha estado latente en sectores del abertzalismo desde siempre, tomando una forma de democraticismo interclasista y abstracto en la carta Demokracia Bai de diciembre de 2018 firmada por conocidas personas de la casta política, incluidas al menos dos de las cuatro que han firmado la propuesta-debate con EH Bildu. Y su viabilidad depende del ritmo y firmeza en la integración del

reformismo abertzale en la «democracia constitucional» española, y ganas no le faltan.

Por último, cuatro, lo aquí visto puede presionar de mil modos a la mayoría de las fuerzas sindicales, populares, culturales, políticas... que han impulsado la huelga general del pasado día 30 de enero para que no abra una «primavera roja» quedándose en un pobre año gris. Los resultados de las elecciones autonómicas del 5 de abril pueden influir en un sentido negativo, paralizante, si no formándose una fuerza revolucionaria que retome la senda mantenida hasta 2010, sin mayores precisiones ahora. Pero de esto y de las perspectivas del futuro debatiremos en la última entrega de esta serie en abril de 2020.

Ahora queremos insistir en que lo que aquí está en juego es, ni más ni menos, el desarrollo de la independencia política de clase del pueblo trabajador orientada hacia el socialismo, o la continuidad de la dependencia política interclasista orientada hacia pactos estables con la mediana burguesía, en el contexto capitalista mundial y vasco ya establecido y al que siempre hacemos referencia. Las declaraciones que se hicieron antes y durante la huelga general iban orientadas hacia el retorno de la estrategia sociopolítica ofensiva de la clase trabajadora o sea de alrededor del 80% de la población, advirtiendo, mejor decir amenazando, a la burguesía que si no devuelve los derechos sociales y democrático arrancados al pueblo con diversas violencias, se entrará en una «primavera roja».

Por sí misma y si no es frenada por el reformismo político-sindical y/o por las represiones, la dinámica de la lucha de clases tiende hacia objetivos más democrático-radicales e impulsores de ulteriores avances al socialismo. Si esta tendencia objetiva no es sabotada de mil modos, sino que es impulsada políticamente, es muy probable que se reinicie un fortalecimiento de la independencia política del pueblo obrero frente a las contradicciones actuales. El desarrollo de la independencia política ha sido hasta hace dos lustros una constante en la izquierda abertzale, teorizada en lo esencial aunque expresada con diversas formulaciones. La independencia política es una de las bases cotidianas sobre las que se levanta la independencia nacional de clase. Recuperarla es imprescindible como también lo es practicarla bajo las presiones del capitalismo actual. Veremos si la vía recuperada globalmente con la huelga general coge fuerza o se estanca, o peor queda sólo en un

Ikuspegiak (III-IVtik)
 Perspectivas (III de IV)

espejismo desmoralizador ante un nuevo retroceso hacia algo parecido a una «Casa Común» con txapela.

Aurrerantz

Euskal Herria, 13 de marzo de 2020



Permalink:
(QR code, URL corta, URL)



<https://wp.me/pbbiBD-tEJ>
<https://www.boltxe.eus/2020/03/22/ikuspegiak-iii-ivtik-perspectivas-iii-de-iv/>



<https://www.boltxe.eus>



boltxe@boltxe.eus



<https://www.boltxe.eus/denda>
(Boltxe Liburuak)



<https://twitter.com/boltxe>



<https://fb.me/boltxe.kolektiboa/>